

JOANES HUARTE DONIBANEKO

Juan Huarte de San Juan deitu izan zaio liburuetan, hemen *Joanes Huarte Donibaneko* deitzen dicgunari. Gehienek, baliteke, ez dute ezagutuko; norbaitek, baliteke, ez du hartaz aditzerarik izango. Hala balitz, zori hobegorik merezi luke euskal humanista honek, eta liburu hau ez litzateke alferrik idatzia izanen.

Errezelagarri ez datekeen luma bat erabili behar badadi, herbesteko "Enciclopedia" ezagun batetik jasoko dut ondoko hau:

Huarte de San Juan (Juan), médico y escritor español (Saint Jean Pied-de-Port 1529 — Baeza 1588), (...). Un solo libro ha asegurado la posteridad de Huarte, el *Examen de Ingenios para las Ciencias*, impreso por primera vez en Baeza, en 1575, y numerosas veces reeditado (...). El influjo de Huarte fue inmenso: en el *Examen*, se inspiró Cervantes para la caracterización de varios personajes del *Quijote*, y en él tiene su primer exponente la moderna psicología. (LAROUSSE: V, "Huarte de San Juan").

Esana dago, beraz, jakinarazi nahi nizuna: Huarte idazle espainola ez zen Espainian jaio. Euskal Herrian, Iparraldeko hiri batean jaioa zen, Nafarroa Behereko Donibane-Garazin. Horregatixe eman nahi genuke hemen, gure liburu bilduma honen barruan, idazle eta pentsatzaile haren berri. Beste garaztar bati jarraikiz egingo dugu topo ahantziegia dugun Huarte Donibaneko-rekin.

Euskal Herriko beste inorekin apenas gertatu den Huarte-rekin jazo denik: XVI. mendetik hona sortu diren zientzia berrien artean, batek baino gehiagok aipatu ohi du garaztar humanista. Literatur kritikatik hasi eta Psikologiaraino; Antropologia filosofikoan, Neurologian, Frenologia utzi gabe, nahiz Zientzien Historian, nonahi suertatzen da Huarteren izena. Pentsa daitekeenez, gerora jaioko ziren Zientzia askoren muga-mugatan eman zuen, nonbait, bere urratsa.

Kondairan halako oihartzuna ukan ote duenaren atzetik doan irakurleak, ordea, desengainio haundi bat izan lezake, *Examen de Ingenios* irakurtzean. XVI. mendeko liburu honen alkantzua behar bezala dastatzeko, gaurkotasun gordinaren lainotatik kanpo begiratu behar da obra. Edo, behintzat, Zientzien Historiaren albisteren batekin horniturik jardun beharko luke irakurle arruntak, haren garrantzi historikoaz jabetzeko. Horregatik, premiazkoa edo oso komenigarria den kondairazko zenbait albiste eskaintzera dator sarrera hau.

HUMANISMO BERRIAREKIN

Pizkunde garaian, hau da, XV-XVI. mendeetan gizonaz pentsabide oso bat sortzen da Europan. Kultur mugimendu hau Mendebalean eta Hegoaldean gertatzen da. Bi erro nagusi zituen pentsabide hark, Erdi Aro gertutik zetorkiona eta Antigoale Klasikoari zor ziona. Errenazimenduak eten bat sortzen badu ere, gaurregun historigile orok aitortzen du Erdi Aroarekin ere badadukan jarraipen-batasuna.

Pentsamendu berri eta berritu honek, gizatiar mugimenduak alegia, bere erpina XVI. mendean jo zuenarren, ez zuen ukan oso gerora arte mugimendu osoa izendatuko zuen izengoitirik. Izanak mendetan hartu zion aurrea izenari. 1808an asmatu zuen Niet-hammer-ek mugimendu osoari zegokion *Humanismus* izena.

Pizkundearen barnean eta *Humanismus* horretan aurkitzen da, inondik ere, Huarte Donibaneko. Egia da, Errenazimenduaren hondarretan bizi izan zena (1529-1588) eta Pizkundearen lodia, Europa gehiengan, ordurako igaroa genuena. Baina, esan beharra dago, hala ere, Huarte Donibaneko beste zentzu batetan Pizkundearen aurrelari zena ere, hau da, geroko Antropologia molde erabaki baten hazia erein zuen, Filosofiatik hasi, bai, baina Zientzia positibuetan murgilduko zen Antropologia baten hazia. Errenazimenduko korrante mardulenetatik kanpo geratutako kultur hegal baten agergarri bilakatu da Huarte Historian. Mundu klasikoari —eta Erdi Aroari ez gutti— hartutako “humanitates” haiek oratu zuten gizaki berriaren irudia, Huartek idaroki zituen bideetatik joango da ondoko mendeetan.

Pizkundeko humanistek gerkera ikasia zuten; Kikero-ren latina erabiltzen bazekiten, eta Azken Erdi

Aroaren eskolastika arruntki mespretxatzen zuten. Mundu klasikoak, latin ederrak, gerkera ongi ezagutzeak edo luma on bat izateak txalorik beteenak jasotzen zituzten. Nolabait esateko, Einstein-i XX. mendean aitortu zaion izen sonatua eta ohorea, orduan Erasmus bati opaltzen zitzaion. Antigoaleak zuen gizonarekiko jakitatea, eta jakitate honi zegokien erudizio klasiko zabalena (kristau legamiz ere altxatua), biziki maiteak zituzten garai hartako humanistek. Izen gutti batzuk kenduz gero (eta kasu hauetan ere ikusi egin behar nola), humanistak ez ziren iritsi zientifiko izatera. Leonardo da Vinci bera ere areago izan zen asmari bat, benetako zientifiko baina. Arteginzatic eta literatur langintzatic Filosofia ederrera jo zuten gehienbat, eta oso noizbehinka bakarrik heldu ziren geroko zientzien zentzuraino.

Pizkundean, luma gizonak ere, literaturgile nahiz filosofari izan, ederraren minez zebiltzen, gainerako artista garaikideak bezala. Hementxe, Pizkundearen zientzi urritasunean, datza ondorengo zenbaiten aurrelaritasuna, modernutasuna. Zientziaren bazka-lekue-tarako langak kentzen dituztenetako bat dugu Huarte Donibaneko. Egiteko hortantxe du Historian egokitu zaion pundu-pundua.

Betidaniko Filosofiek eta Erlijioek, alde batetik, eta Aro Modernuetako Zientziek, bestetik; bakoitzak bere jite eta ikuspide ezberdinetik, gizatasunari, gizaizateari argibide bat eman nahi izan diote. Eta izaki honen definizioa moldatzean, Antropologia bat osatu edo zirriborratu dute. Hemen Antropologia horiek bi taldetan sailkatzen ditugu: Filosofiatik nahiz Teologiatik datozen Antropologiak eta batez ere Zientzia positibuetan finkatu direnak. Susma daitekeenez, Antropologien muetaketa hontan jakin behar da ez datozela elkarren ondotik, txandakatuz eta batak bestea une erabaki batean baztertuz. Ez da bata bapatean desagertzen, eta ondorengo orduantxe sor-

tzen. Ez. Aitzitik, batak erreka jo baino lehen eta bestea tontorrera heldu aurretik, aldapan gora, aldapan behera, bidean gurutzatzen dira, biak aldi berean ibiltari direla. Antropologiaren korronte zahar eta berriak garaikide gertatzen dira, ikusmolde ezberdinetatik, metodu eta mezu ezberdinekin, galdera batberari erantzun nahiez.

Gaingiroki eta zertzelada haundirik gabe, kon-dairak gizonaz eduki dituen ikusmolde sistematikoak apalez apal ezarri behar bagenitu, ez leudeke, ausaz, honelaxe desegokienik: *Antropologia metafisikoa*: Filosofiatik, Erlijiotik eta Fedetik datozen Antropologia. *Antropologia zientifikoa*: Zientzia positibuek, beren datu, joera eta ondoriobidez sortutako Filosofien bitartez, argitara atera duten gizonarekiko ikusmoldea.

1. Antropologia metafisikoa

Antigoaleko Filosofari haundiengan eta Kristautasunean finkatu zen Antropologiaren garaialdi hau. Pizkundeko Mendebaldar Europan, bi iturri horietako korronteak elkarretara jo nahi zuten. Elkartze hauxe da XV-XVI. mendeetako eginahaletan funtsezkoenetako bat. Ez noski San Tomas-engandik hasita edo bereziki Aristotele-gandik ekinda, baina bai Platon eta San Augustinen ibilbidetik. Bi mila bat urtetan (500 K.a. — 1500 K.o.) Europan loratu, edo hona landaturiko Filosofiak eta Teologiak dirateke, beraz, Errenazimenduko Antropologia orratu eta jaikiarazi zutenak. Honela, ba, Antropologia haren berritasuna nahiko erlatibua izan zen, arbaso jakin batzuen lur onduan arrotua.

Pizkundeak amestu zuen giza "irudia" deskribatzen hasi gabe, gogoan har dezagun zera: hizkun-

tzen eta formen ikertzaileek, artistek eta humanistek emandako irudi bat dela. Filosofiatik dator eta Literaturaren umea da "irudi" hura. Bisturi literarioa erabiltzen du, artistaren sentimena edota margolariaren kolorea; baina gizon bakoitzaren (bizi nahiz gorputz denaren) haragia ebakiko duen bisturi mingarria falta zaio humanistari, gizona ezagun dezan. Eta haragia ez-ezik, gizonaren izpiritua ere urrun geratzen zaio: Psikologiaren teknika zehatzik ez zuen ezagutu Pizkundeko humanistak. Alkimia eta Jakintza Izkutuetatik ez da oraindik pasa, eta Zientzia positibu jaiogabeen Laborategiak ezin ditu ezagutu noski. Literatur irudimenak ez dio oraindik leku eman Zientzi asmamenari.

2. Antropologia zientifikoa

Pizkundearen azkenetatik gorabide haundia dakar bigarren Antropologi molde honek. Geroz eta irmoago, geroz eta adoretuago, gizonarekiko jakintza zientzia positibuetan finkatzen da. Badira zientzia hauen parean, filosofia berriak eta ongi berriak ere. Filosofiok, ordea, badirudi, Eskolastikatik aldapa behera ihesi doazen luziak direla. Errenazimendutik honako Filosofiek (Descartes, Malebranche, Bacon, Leibniz...), zientzia positibuetarako garai bateko bide ibilkaitzak lurbete egin dituzte. Hortxen dago nabari (beste datu batzuen artean) Filosofia berrien modernutasuna.

Azpimarra dezagun areago oraindik Filosofiaren eta Zientzien arteko hurbiltasun berri hau: joeraz, Zientziak dira gora datozenak eta Filosofia haien morrontzara irristaka doana. Ez "ancilla Theologiae", "ancilla Scientiarum" baizik. Iraupen luzeenetako gertaera historikoa da hau, belaunaldi luze batzuen buruan nabarmentzen den korrontea. Modernutasun

hau, ordea, ez zen Pizkundearen garaian jaiο, hemen haintzakotzat hartzen dugun zientzien zentzuan, behinipehin. Zentzu hontan, arrazoin osoa ukanen luke Huizinga-k, Pizkundeari "Erdi Aroaren Udazkena" deitzen dionean. Literaturaren eta Artearen aldetik, berritasunaren irrintzia zekarren Errenazimenduak; baina Filosofia eta Zientziarako geroaxeago agertu zen Modernutasunaren lehenen zantzua. Esan dezagun sinbolu batekin: Michelangelo-ren heriotze ondotik (1564) jaiοtzen da Filosofiaren eta Zientziaren Modernutasuna. Kopernikus eta Vesalius izanen ziratekeen, XVII. mendeko Zientzi Iraultzari aurrea hartuko zioketenak: Huarte-k hamalau urte zituela eta xuxenki urte berean biak (1543), agertu ziren Astronomia irauli zuen *De revolutionibus orbis coelestium* eta Anatomiarri bultzada ezezaguna eman zion *De humani corpore fabrica*.

Kopernikus eta Vesalius, zalantzarik gabe, Zientzien aintzindari batzuk izan ziren, egunari bidea erakusteko azken artizarrak, eta artizarra bezain bakar eta galduak. Oraindik ere premiazkoa zen piska bat itxoitea; premiazkoa, Antropologia zientifiko batetara edo askotara iritsi aurretik, filosofariengandik zerbait ikastea, hauetatik izenik sonatuenak aurkitzen bait ditugu Zientzia positibuen hastapenetan. Sarri, beren ideia eta aurkikundeek ez dute Antropologiarekin zuzeneko zerikusirik; baina gizajakintzei ere giro berri batetik heltzeko egarria pizten dute. Arestian aipatu ditugun filosofariek ez zien zientzia positibuei batere enbarazo egin eta, maiz asko, beren pentsaketa eta intuizioekin baita lagundu ere.

Gizonari bere baitandik heldu aurretik, zientzia positibuek entsegu bortitzak egingo dituzte; urruti batetik hurbilduz hurbilduz joango zaizkio gizakiari. Filosofariek emango diote su Matematika berriari (gogoan har Descartes, Malebranche, Pascal, Leibniz,

etab.). Matematikak Astronomia antzaldutako du berehala, eta Kosmo hitsia Unibertsu ireki bat bilakatuko da, gizakia bera ere erlatibatzen duela. Huarte-ren egun-egunetan ari da gertatzen hau.

a) Kosmologiatik gizonagancaino

Mende bakoitzak ukan du —esango litzateke— bere iraultza: XVI.ak erlijio iraultza, XVIII.ak burgesiaren eta industriaren iraultza... XVII. mendeari Zientzi Iraultza izendatzen zaio, hau da, ondorengo jakintza positibuei oinarriak ezarri eta geroko zientzien helburu eta metodoak, orohar, ontzat emandako mendea.

Baina Zientzia positibu hauen hazkuntza (Zientzi Zehatzak, Fisika; Natur Zientziak, giza-zientziak barne) ez da guztietan pare-parekoa, denbora berekoa. Bakoitzak du bere abiaunea, eta gero, bakoitzak bere abiada ere. Lehendabizi gizonaren ingurumaria aztertzen da; gizakia baino lehen, beronen egoitza den mundua (Geografia, Astronomia, etab.). Atzeratuagoak datoz gizonarekiko Zientziak: Anatomia, Fisiologia, etab. Eta, bistan dago, zer-nolako atzerapenarekin jaio zaigun Psikologia.

XVI. mendean “rara avis” bat izan zen Kopernikus. Astronomiaren zero-lurrak itxulipurdikatu ondoren, bere eginahala guztiekin ere, ez zuen oraindik Zientzien udaberria ekarri. Kopernikus-en teoriak —XVI. gizaldiko Iraultzari 70-80 urtez aurrea hartuta—, gizonari bizileku berria eman zioten, eta bizilekuarekin “esanlekua” ere biziki aldatu.

Mendebaldar pentsamenduaren historian, Kopernikus-en obrak urtegun erabaki bat finkatzen du. Izan ere, obra hartatik dago XVII. mendeko “Zientzi Iraultza”, zeren eta Antigoaleko eta Erdi Aroko Kosmo hitsi eta hierarki-

tuak garaialdi modernuetako Unibertsu berdindu eta mugagabeari egiten bait dio leku.

“Kopernikutar iraultzak” badu zerbait harri-garririk: aldez aurretiko deirik gabe eta pres-taketarik gabe agertzen zaigula. Ez Mikolas Cies-ko (agian ezagutu zuena), ezta Leonardo da Vinci (Kopernikus-ek zihurki ezatu ez zuena) aitor bait ditzakegu Kopernikus-en “ain-tzindaritzat”. Eta ardatz inguruko Ludi-jirabira- ketaren posibletasuna Mikolas Oresme-k inoiz seriocki hausnartu bazuen ere, inork ez zuen errezelatu —Aristarko Samoko eta Seleuko-z geroztik— Eguzkia munduaren erdigunean egon zitekeenik eta Ludia orbitabidez mugi.

Bi mila urtetako ibilbide historikoren eta oroitezinen gaindi luzatzen diote elkarri beren bostekoa *De revolutionibus orbium coelestium* liburuak eta greziar zientifiko haiek. Baina, Ptolomeo-rengandik jasotako teknika matema- tikoaz sendoturik, greziar jakintsuek, usnatu ere egin ez zezaketen zerbait lortzen dute XVI.lean (A. Koyré. E. Rosen).

Pizkundeko Humanismoak, teoria berriarekin, ostikada gogorra hartzen du bere baikortasunean. Gizakia —kultura osoaren iturri, ardatz eta helburu bihurtu den gizakia— arriskutan dago. Kopernikus-en ondotik, ezin daiteke gizona, inola ere, bilaka izadiaren ardatz. Unibertsu ireki eta nahasi baten xokoren batean, galduta, inoren inguruan jirabiraka dabilen Ludi ttipi bateko bizilagun bitxi bat besterik ez bait da gizaki hori. Horra, ba, Humanismoa eta Pizkunde osoa jakintzaren drama berri baten aurrean.

Izadiaren gizatiartzea ez, baizik matematikakuntza da XVII. mendearen haseratik Zientzi Iraultzaren helburua. Galileo, Kepler, Descartes, Newton, guztiok arazo berean saiatzen dira. 1620aren inguruan hasten dira aldatzen Zientziaren metodoak. Metodoak ematen dio Zientzia berriari aparteko modernutasun kutsua. Modernutasun hura ez da, noski, geroko Zientziarekin gonbaratuz begiratu behar, 1600.aren aurrekoarekin baizik. Eta ohar hau behin eta berriz gogoratu nahi

diogu irakurleari, Huarte Donibanekoz ari garela ere. Zentzu hontan, urte haietan Zientziari emandako berrikuntzagatik mintzatu ahal izan da "1620ko mirariak". Lehendabizikoz orduan koantifikatu nahi da Unibertsua, eta gizakiarekiko jakintzek ere helburu bera dute ordutik. Fisika koantifikatu hark, gizonaz ere ikusmolde berri bat ezar zezakeen: gizonaren entzumena, esate baterako, aide dardarazioaren koantifikapen batekin osorik konpreni ahal ote zitekeen? Ala gizonak balio koalifikagarri bat ere ematen ote dio entzutearen gertakizunari? Eta hola moduzko galderak egin zitezkeen gainerako giza-zentzumenei buruz. Zientziaren azterkizunaren esanahia dago hemen eztabaidatan: esentziak ala agerkina?; sustantzia ala "fenomenua" da zientziei dagokien azterkizuna? Izakitasun eta esentziak erabat baztertu nahi ditu Zientzia berriak eta, geroz eta areago, fenomenu hutsa bilakatuko da zientzigai bakarra. Metafisika eta Fisika arras banatuko dira. Antropologia ere, Kosmologia berrietik igaroaz, Metafisika hartatik irtenda, Zientzia positibu bat izaten ahaleginduko da.

b) Gizona bere baitandik

Eman dezagun beste pauso bat, munduaren Fisikatik beronen Biologiara. 1599-1616. urteetan argitara ematen du Ulisse Aldrovandi-k bere *Entziklopedia*. Gaurko Zoologiatik begiratuta, liburu hau prezientifikoa da; baina ordura arteko jakintzen, ezjakintsunaren eta iritzien lekuko ona ere bai. Izaki bizidunen muetaketa, egiteke ageri da oraindik, eta bada nahasketarik aski *Entziklopediaren* klasifikazioetan. Moufet (1634) eta Jonston-en (1657-1665) obrek ez dute lehendik jakina zena baizik esaten. Fisika eta Astronomia abiada bizian aurrera doazen bitartean, Zoologiak ez du sikira pauso berri bakar bat ere

ematen XVII. mendearen azken urtetara arte (Willoughby, Ray).

Gizona, bere aberastasunean ezagutzeko laguntza Anatomiatik etorri zen nahiko sasoiz. Belon eta ua Vinci XVI. mendean; Blaes, Acquapendente, Perrault, Duverney, Tulp eta abarrek XVII. ean bultzada handia emango diete animalien anatomi istudioei. Batez ere, bertebratuen azterketa hauetan maiz agertuko da zenbait animalia eta gizonaren arteko hurbiltasuna. XVII. mendean Fisiologia berri bat sortzen da eta, honekin batera, baita Anatomicaren barnean sekulako metodo berrikuntza ezarri ere. Harvey-ren gizaldia da XVII.a.

Hamazazpigarrenean, Anatomicaren barruan Neurologiak toki nabarmen bat irabazten du. "Arimaren egoitzaz" eztabaida luzeak ezagutzen dira, Neurologiaren pauso hauek ematean. Buru-garunaz eta bizkar-hezurraren muinaz biziki arduratu ziren midikuak: Thomas Willis (1621-1675) dugu mende hartan neurologurik ezagunena. Buru-garunaz egin zituen, baitipat, bere istudioak, ez bait zen oraindik nerbio multzo hori ezagunegia. Hamazazpigarren hontan, midikuen artean bizi izan zen aparteko kezka honekin lotu beharko genuke Huarte-ren liburuak XVII. mendean eduki zuen arrakasta zabala, izan ere mende hortakoak dira *Examen de Ingenios*-en ediziorik gehienak. Willis-engandik hasita, Antropologia zientifiko baten bidea urratzen saiatzen da Neurologia. Gizona —"gorputz" eta "izpiritu" izaki— zientzi bide hortatixe aurkituko du. Hortxe barruntatzen da giza izaki aldrebes, aberats eta misteriotsu hau ezagutzeko, "izpiriturako" bidea. Filosofia metafisiko batetik ekinda, Anatomia, Fisiologia, Midikuntza zehar segiaz, Neurologia eta Psikologiara doan kondairazko zidoreean mugarri bat da Huarte Donibaneko. Gizona, bere baitan konprenitu nahiaz eman zigun hark bere liburuak.

Gizona bere psikologian atzemateko, XIX. eta XX. mendeek eman dituzte pausorik larrienak, opa-roenak. Zientzi lan hau izen sonatu eta aurkikunde iraultzaile batzuetan finkatu da. XIX. mendean aipa dezagun Franz Joseph Gall-en (1758-1828) Frenologia. Frenologiak sekulako arrakasta ukan zuen azken mende hortan. Buru-garunaren eta adimen funtzioen artean dagoen elkarloturak erakutsi nahi zituen zientzia honek, buru-hezurraren konkorrak aztertuz. Laster desbidetu zen zientzia berria, buru-hezurraren kanpoko itxura hutsari begiratuta, garunaren beraren balioa eta, ondoriobidez, gizakume bakoitzaren adimen balioak horrela kanpotik neurtu nahirik. Sasizientzia bilakatu zen, midiku jatorren eskuetatik beste pentsaizailetara pasa zenean. Hala ere, haseratik baieztatutako hipotesi batzuen sinplekeriaz aparte, esan behar da, geroko psikologia enpirikoari leihatila bat ireki ziola Frenologiak: ongi ikusi zuen (edo asmatu) garunaren eta adimen ahalmenen arteko elkarkidetasuna.

Huarte, inoiz, frenologu bezala izendatu izan da. Marañon-ek dioenez, Huarte ez da inondik ere frenologua. Ez zen sartu Frenologiak egin zituen buruaren geometria matematikatuak egiten, eta horregatixe ez zen erori beste hauen barregarrikerietan. Huartek hipotesi bat eman zuen (bio-psikotipologia baterako hipotesia); zoritxarrez, oso gerora arte erabili izan ez den hipotesi bat.

“Izpirituen ikerketak”, erremediorik gabe, XX. mendekooi Sigmund Freud-en psikoanalisiaren gogoratzen digu. Psikoanalisiaren inguruan —alde eta kontra— egin da Psikologia modernua. Freud ere Neurologiatik hasi zen, eta gizakion izpiritua arakatzera heldu. Giza-burubide eta jokabideak, azpitik dagoen (hau da, burubide guztien aurrekoa den) mamidura bati itsatsiak daude. Freud-ek “inkontzientea” aurkituko du, oharmenaren agintetik ihes

eginik bizi den barne-mundu estrukturatu bat. Hor, inkontzieteko arrazoin izkutuetan, finkatzen dira —esango du Freud-ek— gizakiaren burubide asko. Inkontzientea, gizakiari bere baitandik ezarri zaion bigarren egitura bat da. Beharrezkoa zen, noski, zuzerean ikusiezina zen inkontzientea idorotea, eta aurkikunde hauxe izan zen Freud-en garaipenik ederrena. Horrela jaio zen “giza-inkontzienteen tipologia”.

Baina Freud-en garaiko edo ondoko biologu, psikologu edo gaur bertoko etologuak, ordea, aseko ote ziren, gizakiaren lehenen izaera fisiologikotik begiratura, bigarren mailakoa zuten inkontziente horrekin? Bere garaian, Filosofiatik eta Medikuntzatik zetorren Huartek, Fisiologiarekin topo egin zuen gizakiaren burubideak esplikatzean. Eta, XX. mendean ere, orobat gertatu da: psikoanalisi atzean utzirik, Fisiologiara itzuli dira psikologuak. Giza-burubideen esplikagarri izango den *Biotipologia* bat sortu eta eratu nahi izan da.

Huarte-k, gizaki bakoitzaren gorpuzkeran aurkitzen ditu norberaren izpirituzko gaitasun eta aiurria: gorpuzkerari dariona da halako edo honelako tenperamenduren jabe izatea. Tenperamenduen tipologiak urruneko iturburuak ditu historian: Hipokrate (460-370 K.a.) eta Galeno (129-199 K.o.) Antigoalean; baina, hala ere, oso hurbilekoa da historian biotipologia. 1921.ean argitaratzen du Kretschmer-ek bere “Körperbau und Charakter” liburua. Egundoko oihartzuna ukan dute geroztik Kretschmer-en teoriak. Tubingen-go irakasleari eroetxeko lanak zera ikusarazi zion, zirudienez gaixotasun mueta bakoitza gaixoaren gorpuzkerarekin loturik zetorrela. Hau errezelatu ondoren, Kretschmer-ek hipotesi espligakarri bat eman zuen: erotasun mueta bakoitza, jatorrizko tenperamendu-joeraren azken muturrean dagoen anormaltasuna baizik ez da. Ondorio bezala, hau baieztatzen du Kretschmer-ek: gizonon aiurria eta burubidea

bera ere, gizakume bakoitzaren tipologiatik aurreikus litezkeela.

Sheldon amerikarrak (1940-43) kritikatu eta osatu zituen Kretschmer-en teoriak. Lau mila ikasleren argazkiak aztertu ondoren, berauen gorpuzkerak hirtan sailkatu zituen. Sailketa hauetan, morfologiaren eta tenperamenduaren arteko loturak erakusten ditu Sheldon-ek ere.

Kretschmer eta Sheldon-ek kanpoko gorpuzkeran bezala, Pavlov-ek bizikien barne-dendunean aurkitu du izaki bakoitzaren aiurri jatorburua. "Tenperamendua, kristau bakoitzaren izan-modu orokorra da, bere nerbio sistemaren berezitasunik funtsezkoena, eta gizabanako bakoitzaren ekintzatasun orori erantsen dio marka bat, sinale bat". Pavlov-ek berak aitortzen duenez, Hipokrate-ren tenperamenduen muetaketa ez dago hain urrun berak esperimenduetan ikusi ahal izan duenetik.

Huarte-ren "izpirituen" teoriak ere, Greziatik gure egunetaraino datorkigun jakintza katearen begirik nagusienetakoak dira.

HUARTEren LIBURUA

Liburuaren beraren zenbait albiste jaso aurretik, bi midiku ezagunen iritziak jasoko ditut hemen. Gregorio Marañón zenak, 1933.ean, hitzaldi bat eman zuen Iruinean Huarte Donibanekori buruz. Laín Entralgo-k, berriz, bere liburuetan aipu bereziak eskaini

dizkio gure garaztar idazleari. Marañón eta Laín, biak dira midikuak eta biak jardun izan dira histori lanetan. Prestamen egokia izan dute, beraz, Huarteren esanahia balioztatzeko.

1. Marañón eta Laín Entralgo-rekin

Goazen lehenik Laín-en iritzietara. Laín-ek zientziaren eta, bereziago, midizinareen Historia eman digu. Autore honentzat, Huarte aintzindari bat da, hots, pizkundetar bat (errenazentista bat) izanik, bere garaiari aurrea hartuta datorren pentsatzailea da Huarte. Dakarren berrikuntza honela aipatzen du: "un esbozo abierto hacia el futuro que caracteriza el aspecto más innovador del pensamiento de la época [del Renacimiento]". Geroko antropologiaren zenbait ideia aurreratzen ditu Huarte-k. Hortan, Zientzi Historiaren igarle bat da. Gizakiaren istudio berri baterako ibilbide nagusiak marrazten dituzten horietakoa da Huarte, hau da, gizakiaren istudio objetiburako bide urratzaile. Zentzu hontan, Huarteren pentsamoldea XIX. mendeko Antropologiaren heldutasun berriarekin esku emanik agertzen zaigu. XVI. mendean Gómez Pereira eta Paracelsus-ekin osatzen den korronte jakin baten barnean molda liteke Huarteren eginkizuna ere. Premiazkoak diren ñabardura eta mugapenekin esanaz, Huarteren bikaintasuna isilezina da:

El "naturalismo" de la antropología de Huarte de San Juan es, pues, notoriamente abusivo [gizonagan ohiturak ere duen eragina gutiesten duelako, alegia]. Pero ello no amengua la gran importancia histórica de su libro (Laín Entralgo).

Huesca-n ikasi zuen garaztarrak; baina ez orduko eta ez hango giroek lagundu zioten Huarteri bere

teori sistema sor zezan (Marañón). Horregatixe, Huarte idazlearen baitan (eta liburuan) ageri da hamaika zalantza-malantza. Huarte-ren pentsabiderik onena garaiaren kontra egina da, edo nahiago bada, geroko Historiaren alde. Teologiak eta Eskolak ezarritako ortodoxiaren (edo ortodoxia horren moldeen) kontra jaikitzen da —azpitik, oharkabe eta isilpean— Zientzi intuizio baten lehermin ezezaguna. Barru-barruan zeraman ekaitza Huarte-ren pentsamenduak:

A esta tempestad que rugía en lo hondo de la conciencia de Huarte, como de tantos hombres más de su tiempo, se debe, sin duda, esa inquietud terrible que se presiente por debajo de la espuma teológica y filosófica que encubre el pensamiento de nuestro gran doctor (Marañón).

Huartek, *Examen de Ingenios* bere liburu bakarreko gogoetari txertatu zion modernutasunak Europa osoaren arreta irabazi zuen. Hona ba, liburu horren zabalkundeaz zerbait esateko egokiera ona, izan ere, benetan jakingarria da beronen edizioen kondaira.

2. Examen de Ingenios-en edizioak

Aita Maurizio Iriarte-k jakinarazi digunez, anitz edizio ukan ditu liburuak. Gaztelaniaz aparte, beste sei hizkuntzatan argitara eman da *Examen de Ingenios* hori: frantsesez, anglesez, italeraz, alemanez, flamenkeraz eta latinez. Hizkuntza guztiotan ez dira, noski, maiztasun berarekin arduratu gure midiku idazlearen lanaz. Gaztelaniaz eta frantsesez ezagutu zuen arrakastarik haundiena: 27 argitalpen hizkuntza hartan, 24 bestean. Italeraz zazpi eman dira eta anglesez sei. Alemanez bizpahiru; flamenkeraz eta latinez bana izan dira, kontatu ahal izan direnak.

Lehenengoaren ondoren (1575), edizio berriak laster datoz jarraian. Gaztelaniaren hesiak hautsiz, bost urte barru ematen da frantsesez, eta 1600. urtea baino lehen Italian zabaldua da (bost edizioekin), Ingalaterrara iritsi da (bi edizio). Lehenengo hogei-tabost urte horiek egin dute beren zabalkunde lana.

Baina, Europari begira, XVII. mendea da harri-garriena. Liburuaren agertu berrian oso ulertzekoa zen oraindik edizioak behin eta berriz egitea; XVI. mendeko argitalpenak liburuaren berritasunak (beste baloraziotan sartu gabe) nahiko esplika ditzake. Berritasun hutsak ez du argitzen, ordea, hurrengo mende osoan jakitunek liburuarenganako duten irakur grina. Liburuaren eskea zabala da, eta argitaldariak ezin dute ahantzi garaztarraren obra hau.

Irakurleak albiste zehatzagorik izan dezan, ondoren ematen dugu edizioen zerrenda. Jon Bilbao-ri jaso dizkiogun berrietatik eta han-hemenka ikusi ditugunetatik ondoko hau eratu dugu. Edizio bakoitzaren urtea eta inprima-hiria aipatzen ditugu. Ez daude edizio den-denak; baina hemen adiarazi nahi dugunerako aski da, noski, hortik ikusten dena. Urte berean, hiri bat baino gehiago aipatzen denetan, edizio ezberdinen inprima-tokiak direla esan nahi da.

Gaztelaniaz

		1640	Alcalá
1575	Baeza	1652	Leyde
1578	Iruinea	1662	Amsterdam
1580	Bilbo	1668	Madril
	Valencia	1691	Leyde
	Leyde	1702	Bruxelle
1581	Huesca	1703	Anvers
1591	Leyde	1768	Granada
1593	Amberes	1845	Madril
1594	Baeza	1883	Barcelona
1603	Amberes	1884	Barcelona
	Medina del C.	1917	Barcelona
1607	Barcelona	1930	Madril
	Amberes	1946	Buenos Aires

Frantsesez

1580 Lyon
 1588 Parise
 1597 Lyon
 1598 Rouen
 1602 Rouen
 1605 Parise
 1607 Rouen
 1609 Lyon
 1610 Rouen
 1613 Rouen
 1614 Parise
 1619 Parise
 1631 Parise
 1634 Parise
 1645 Parise
 1646 Parise
 1650 Parise
 1658 Parise
 1661 Parise
 1668 Parise
 1672 Amsterdam
 Lyon
 1675 Parise
 1745 Parise

Alemanez

1782 Zerbst
 1785 Wittenberg

Anglesez

1594 London
 1596 London
 1604 London
 1616 London
 1698 London
 1959 Gainesville
 (Florida)

Latinez

1610 Kolonia
 1612 Estrasburgo
 1621 Kolonia
 1622 Kolonia
 1623 Anhalt
 1852 London
 1661 Anhalt
 1663 Anhalt
 Jena

Italeraez

1582 Venezia
 1586 Venezia
 1588 Cremona
 1590 Venezia
 1600 Venezia
 1603 Venezia
 1604 Venezia
 1619 Roma

Lehenen argitalpena, esan bezala, Baeza-n egin zen, hau da, autorearen orduko bizilekuan. Baina, ondoko edizioetan, bada guretzat nahiko nabarmena gerta daitekeen zerbait: gaztelaniazko bigarren eta hirugarren edizioak Euskal Herrian egiten dira. In-

prima-lanetan, Euskal Herrian ez zen batere aurreratu, aitzitik European eta Espainian bertan ere, hiri eta toki asko ziren lanbide hauetan aurea hartua zigutenak. Inprima-lanetan ez genuen tradiziorik, eta Amberes, Lyon edo Ginebra-ren ondoan hutsaren hurrengoak ginen hemen. Hala ere, urte haietan baditugu bi inprima-etxe: Porrallis ari da Iruinean eta Mares Bilbon. Donostian ez zegoen ezer, ezta Gasteizen ere. Halaz ere, bi inprimatzaileok Espainiako guztiei aurea hartu zien, liburua ezagutu zuten orduko. Andaluzia-n argitara berria eta mundu zabalera joatekoa zen obra hura ongi balioztatu zuten.

Tomas Porrallis-ek irarri zuen, Iruinean, *Examen de Ingenios*-en bigarren argitalpena. Saboiarra zen Porrallis hau, eta Iruineko Udaletxeak deituta jarri zuen han bere inprima-etxea (1569). Bilboko edizioaren irartzailea Matias Mares izan zen. Inprimaketaz aparte, posible da, kanporako bideak ere inprimatzaileok berauek ireki izatea. Hain zuzen, Porrallis Amberes-tik etorria zen, eta, jakina denez, hiri hau zen orduan Europako merkatal-hiririk haundienetakoa eta baita inprimategirik sonatuenak zeduzkana ere. Bazituen, noski, Lurralde Beheretako hiri hartan bere harremanak. Ongi ikusi zuten Porrallis-ek eta Mares-ek: liburu hura joanetorri haundikoa zen eta, oraindik dirutza ugaririk ematen ez bazuen ere, etorkizuna ikusi zioten, nonbait. Geroko argitaldaries baino gehiago arriskatu zuten, eta horregatik ere ohore berezia zor diegu.

Euskal Herritik kanpoko edizioetan bada ohar-garririk franko. Frantsesez, 19 argitalpen ematen dira XVII. mendearen barnean. Gizaldi hori da Frantziaren Urrezko Aroa eta frantses hizkuntzak kultur maila berria irabazten du orduan. Alemanian ere frantsesez irakurtzen dute jakitunek, edota latinez. Frantses edizioek bitan doblatzen dituzte XVII. gizaldian gaztelaniaz egindakoak.

Latinezko edizioak, ia denak, Alemanian argitaratzen dira, eta denak XVII. mendekoak ditugu. Alemanez bi bakarrik ezagutzen ditugu; baina Alemaniaren literatur gizonik haundienetako bat arduratu zen harako itzulpena egiten: G.E. Lessing (1782). Ez zen ohore kaskarra berrehun eta gehiago urte zituen liburu zahar batentzat!

Euskal Literaturan Kempis-ekin gertaturikoa berri-berri da itzulpen hauekin. Hizkuntza bakoitzean itzultzaile bat baino gehiago izan zuen liburuak. Latinera, esate baterako, lau itzulpen desberdin egin ziren; frantsesera, hiru; anglesera eta italerara, bina.

Zientzi Iraultzaren muga-muga bezala eman dugu, arestian, 1620.eko urtea. Goiko zerrenda hortan aipatu ditugun 77 edizioetatik 42, urte horren aurrekoak dira, eta italeraz guztiak dira 1620.a baino lehenagokoak. Oraindik miatzeke dagoen azterkizun bat sumatzen da hor. Lehenen argitalpenaren ondoko 50 urteetan, 45 edizio egiten dira gutenez Europan. Kasik urteoro edizio berri bat! Nortzuk izan ote ziren liburuaren irakurleak? Jaiominez orduantxe zegoen Zientzia modernuagan norainoko eragina ukan ote zuen garaztarraren pentsamenduak? Izan ere, une historiko aparta suertatu bait zitzaion liburuari, argitara eta berehala. Zabalkundearen xehetasun gehienak ezezugunak izanarren, benetan hildo sakona ireki ote zuen gaude liburu honek.

3. Ideien gaurkotasuna

Gaurregungo gizonak ere ongi argi utzi nahi izan dute liburuaren balioa: "Aun hoy, cuatro siglos después, podemos utilizar gran parte de sus datos clínicos y de sus sagaces sugerencias psicológicas"

(Marañón). Huarteren liburua idatzi zenetik, mendeak igaro dira, eta Historiak ez du bere joanbearra alferrik egiten. Historiak, ordea, nori berea zuzenki eman ohi dio, eta liburu honi justizia osoa egin dio.

No corresponden las ideas que Huarte, en plena época galénica, tenía de los temperamentos a las que hoy poseemos y propugnamos sobre esta materia. Nuestras ideas son más racionales, más próximas a la verdad que las suyas, aunque las nuestras están todavía lejos de la verdad. No obstante, es indudable que Huarte no solo estableció sobre bases científicas la orientación de las vocaciones, sino que entrevió con nitidez el problema de las correlaciones entre las distintas formas humanas y los distintos temperamentos, problema que en la actualidad constituye una de las preocupaciones más afanosas de nuestra ciencia (G. Marañón).

ETXARREN-LOHIGORRIren LIBURU HAU

Etxarren-Lohigorriren liburua eskaintzen diogu hemen irakurlari. Elaberri itxuran ematen da liburu honen lehenen partea. Bigarreanean, oster, Huarte Donibanekoren pentsamendua azaltzen digu autoreak.

Huarte bezala, Etxarren ere garaztar idazle bat dugu. Bere herrikide duen XVI. mendeko hura gutartera ekarri nahi digu. Familia artera, esango nuke. Etxarren-en orrialdeak, elaberri gisan badatoz ere, alde aurretik bestelako bilaketa lanik franko egin ondoren jaioak dira. Lehendabizi, Etxarren-Lohigorrik

Huarteren Historia, giroa eta pentsamendua bilatu zituen. Orain zenbait urte hasitako lana da hori. Ihaztik hona, Baiona-ko "Gure Herria" aldizkarian saiatu da, jakitunentzat, ikerketa haien fruitua artikuluetan ematen. Norbaitek, lan hau bera, batere nobela janzkirik gabe nahi balu, hantxe ikus lezake.

Nafarroa Behereko euskaran emandako liburu bat da Etxarren jaunaren hau. Xabier Agirre-k jarri du euskara batuan, JAKINen irakurleak ohiturik dau-denera moldatuz. Eskerrak berari bete duen egin-kizunagatik.

Badaezpada ere, norbaitek Huarteri buruz zertzelada gehiagorik nahi badeza, nondik jo jakin dezan, bibliografiatxo bat eransten diot. Jon Bilbao-ren "Bibliographia"tik, Etxarren jaunaren zerrenda batetik eta erabili ditugun beste zenbait liburutatik osatu dugu bibliografia hau. Ez dago, noski, oso-osorik, baina lehenen pausoak emateko, lagungarri izango zaio irakurle kezkatuari. Dena dela, Iriarte-ren liburuari eman behar diogu —orain-oraingoz— erabateko lehenengotasuna, bibliografia hortan.

Joseba Intxausti

BIBLIOGRAFIA

- AGUADO, E.: *Doctor Huarte de San Juan*. Madrid, 1944.
- ARTIGAS, M.: "Notas para la bibliografía del Examen de Ingenios", in *Homenaje a D. Carmelo de Eche-garay*. San Sebastián, 1928.

- BEDOR, N.: *Discours sur l'Examen des Esprits*, Paris, 1830.
- CARRERAS, T.: "Vocación e ingenio según Huarte y Letamendi", in *Ciencias*, 1953, 173-179. or.
- ESPASA-CALPE: *Diccionario Enciclopédico Ilustrado*. 28. t. "Huarte de San Juan".
- ETCHARREN, J.B.: "Juan de Huarte de San Juan", *Gure Herria*, 1974, 1-18, 77-96, 177-187, 225-231, 271-280, 353-364; 1975.
- FARINELLI, A.: *Dos excéntricos. Cristóbal de Villalón. El Dr. Juan Huarte*. Madrid, 1936.
- FIGUERIDO, C.: *La orientación profesional y el médico navarro Juan de Huarte*. Bilbao, 1932.
- GUARDIA, J.M.: *Essai sur l'ouvrage de J. Huarte des aptitudes diverses pour les sciences*. Thèse pour le doctorat. Paris, 1855.
- GUARDIA, J.M.: "Philosophie Espagnolle. Juan Huarte". *Rev. philosophique*, 1890, 471-490 or.
- GUEDON-CHAUMIERE: *Notice sur Jean Huarte, né à St. Jean Pied de Port au 16ème siècle*. Paris, 1850.
- GUIBELET, J.: *Examen de l'Examen des esprits*, Paris, 1631.
- GUY, A.: *Les philosophes espagnols d'hier et aujourd'hui*. I. *Epoques et auteurs*. II. *Textes choisis*. Toulouse, 1956.
- HERRERO, A.: *Juan de Huarte de San Juan*. Madrid, 1941.
- IBARROLA, R.: "Um precursor da Psicotecnia: Huarte de S. Juan". *Bol. do Inst. d. Orient. profes.*, Lisboa, 1941.
- IRIARTE, M.: *Dr. Juan Huarte de San Juan und sein "Examen de Ingenios"*. *Beitrag zur Geschichte der differentiellen Psychologie*, Münster, 1938.
- IRIARTE, M.: *El doctor Huarte de San Juan y su "Examen de Ingenios"*. *Contribución a la historia de la psicología diferencial*. Madrid, 1939. (Aurre-

- koaren itzulpen emendatua. 1948an egin zen oraindik beste edizio bat, CSIC-an).
- IRIARTE, M.: «El Ingenioso Hidalgo» y «El Examen de Ingenios». Qué debe Cervantes al Dr. Huarte de San Juan". RIEV, 1933, 499-522.
- MARAÑON, G., "Examen actual de un examen antiguo", in *Tiempo viejo y tiempo nuevo*. "Austral, 140". Buenos Aires, 1946.
- PEROUSE, N.: "Examen des Esprits. Diffusion et influence en France". *Belles-Lettres*. Paris, 1970.
- REY ALTUNA, L.: El pensamiento filosófico de Huarte de San Juan". *Príncipe de Viana*, 1945, 133-147 or.
- SALILLAS, R.: *Un gran inspirador de Cervantes. El doctor Juan de Huarte*. Madrid, 1905.
- SALINAS QUIJADA, F.: *Juan Huarte de San Juan*. Pamplona, 1969.
- SALVA, J.: "Observaciones sobre la obra titulada Examen de Ingenios por Juan Huarte, escritor de fines del siglo XVI". *Revista de Madrid*, 1841, I, 266-276 or.
- SIMONEDA, A.: "Un precursor de la orientación profesional, el doctor Juan de Huarte". *Cuarto Congreso de Estudios Vascos*, 1926, 55-68 or.
- TAMIZEY DE LARROQUE, Ph.: "Sur l'époque de la naissance de Huarte". *Revue Gascogne*, 1888, 53 or.
- ZALBA, J.: "Don Juan de Huarte". *Vida Vasca*, 1940, 187-189 or.